


/ Nabarmentzekoak

- > Udalak Ereagako "La Terraza" ustiatzeko kontratua deuseztatu du (2. or.)
- > 260.281 euro, Gizarte Kohesioan diharduten 56 erakunderentzat (5. or.)
- > "Lonjak Piztu" programak zazpi negozio ekintzailerik eman die diru-laguntza 2025ean, lokalaren alokairuaren gastuen zati bat ordaintzeko (5. or.)



*Unai Aranzadi zuzendari getxotarraren "Buscando a Pedro Baigorri" dokumentala saritu dute (4. or.)

Antzerkia. Urtarrilak 10, 20:00etan, Muxikebarrin, "Testigo de cargo". 22 euro.

Haur eta familientzako antzerkia. Urtarrilak 11, 18:00etan, Muxikebarrin, "La isla del tesoro". 8 euro.

A-
GENDA

Eta Olentzeroren ostean, badatoz Erregeak

Ekialdeko Errege Magoak euren karroza eta desfileak prestatzen ari dira datorren asteleheneko, urtarrilaren 5eko, kabalgararako. Udalerriko kaleak magia eta alaitasunez beteko dituen ekitaldi hori bi etapatan egingo da, ohi bezala.

Lehenengo desfilea 17:30ean hasiko da Andra Mari Kiroldigitik, eta Maidagan, Angel Etorbidea, Telletxe eta Mariandresena zeharkatu ondoren, Algortako Kasinora iritsiko da. Jarraian, maiestateek hurrei harrera egingo diete Muxikebarrin, ate nagusitik sartuta.

Bigarren desfilea 19:30ak aldera abiatuko da Zugazarte Etorbidetik (Marítimo del Abra Klubaren aurrean) eta Areeta Etorbidea eta Nagusia, Ezequiel Aguirre, Kresaltzu, Gorbeia Mendia eta Gobelaurre kaleetatik jarraituko du. Handik, erregeak Romo Kultur Etxea-RKEra joango dira, hurrei arretea emateko. Iristen diren bitartean, gune horretan zirkua ikusteko aukera izango dute familiek.

Aurten, kabalgatak zortzi karroza eta herriko hainbat elkarteren animazioa izango ditu. Hala ere, bi fanfarre egongo dira Algortan eta Areeta-Romon kaleak girotzeko.



Aurreko deialdiko eskabideen kopuru bikoitza aurkeztu da

Gazteentzako 127 diru-laguntza etxebizitza alokairurako, 195.257 euro guztira

Udalak 195.257 euro bideratuko ditu gazteentzako 127 diru-laguntzatarako, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko 2024ko uztailearen 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu duen erabakiaren arabera. Deialdi honetara 200 eskabide aurkeztu zituzten gazteek eta horietatik 127 onartu ditu Udalak (aurreko deialdian 101 eskaera izan ziren eta 85 banatu ziren); bat ez dute onartu epe kanpo aurkezteagatik; 57 ezetsi dira; eta 15 pertsonak prozesuan atzera egin zuten. Ondorioz, 83 gazteek lehen aldiz jasoko dute etxebizitza alokairurako diru-laguntza; 26k, bigarren aldiz; eta 18k, hirugarren aldiz.

Laguntza hauen helburua da Getxoko 18 eta 35 urte bitarteko gaz-



teei laguntzea emantzipatzeko eta helduen munduan sartzeko prozesuan, baita sustatzea udalerriko eremu guztietan alokairuko etxebizitza bat eskuratu eta bertan jarrai dezaten ere.

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza zinegotzia den Álvaro Gonzálezek positibotzat jo du deialdi honetan erregistratutako eskaeren gorakada, "informazioa zabaltzeko egindako ahaleginaren ondoren, informazio-gutun bat bidali baita balizko eskatzaileen etxeetara. Izan ere, bi aldiz eskaera gehiago aurkeztu dira, eta aurreko edizioan baino 42 laguntza eta 80.403 euro gehiago eman dira. Horrela, gazteek alokairuko etxebizitza bat izatea babes-ten jarraitzen dugu, emantzipazio-prozesuan aurrera egin ahal dezaten".



ABENDUAK 30 ASTEARTEA

Berto Katea. 20:00etan, Katea gunean (Algorta), tabernaz taberna, Unai Mendiburu eta Amets Arzalluz bertsolarien saioa. Antolatzaileak: Abian Kultur Elkarte eta ALBE.

Gabonetako V. organo zikloa. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Xabier Andrada (biolina) eta Andoni Andrada (organoa). Antolatzailea: Merklin organoaren lagun Elkarte.

URTARRILAK 2 OSTIRALA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Samaria Gospel Singers". 12 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Jia Zhang-Keren "A la deriva" (JBO). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

URTARRILAK 3 LARUNBATA

Opera. 19:00etan, Muxikebarrin, "La flauta mágica", Camerata Líricarekin. 18 euro.

URTARRILAK 4 IGANDEA

Haur zirkua. 18:00etan, Muxikebarrin, "Akri" (gaztelaniaz), Manel Rosésekin. 8 euro.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Dragon Ball Super Broly". 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "La alfombra mágica". 2,50 euro.

URTARRILAK 5 ASTELEHENA

Erregeen Desfilea. 17:30ean, Andra Mari-Algorta ibilbidea, eta 19:30ean Areetako-Romo ibilbidea. Amaitu ondoren, Erregeen harrera Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean.

URTARRILAK 7 ASTEAZKENA

Zine dokumentala. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, Asier Ibaibarriaga eta Edurne San Martinen "Txillarrek sukaldaria" (euskaraz eta gaztelaniazko azpiztituluekin). Sarrera doan.

URTARRILAK 8 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Emmanuel Moureten "Tres amigas" (JBO). Sarrera: 3,50 euro.

URTARRILAK 9 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Katana" Ana Goitiak interpretatuko duen umorezko bakarrizketa. Sarrera: 8 euro.

Ipuinkontalarien Kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Aretan (Villamonte). Sarrera doan edukiera bete arte.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jaime Rosalesen "Morlaix" (JBO). 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50 euro.

URTARRILAK 10 LARUNBATA

Dantza plaza. 19:30ean, Malakate parkean, erromeria herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola. Doan.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Testigo de cargo", Fernando Guillén Cuervo, Lupe Cartié, Bruno Córdia, José Luis Esteban, María Zabala, Marcos Marín, José Cameán eta Nerea Mazorekin. Sarrera: 22 euro.

URTARRILAK 11 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, Imanol Zinkunegi eta Joseba Poncearen "Lur eta Amets". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Haur eta familientzako antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "La isla del tesoro" Inhabitants konpainiarekin. Sarrera: 8 euro.

Lizitazioaren plegu tekniko berria hobetzeko lanean ari dira

Udalak Ereagako "La Terraza" ustiatzeko kontratua deuseztatuko du

Udalak Ereagako *La Terraza* eraikina ustiatzeko emakida-kontratua deuseztatuko du, eta lizitazio berrirako plegu teknikoak hobetzeko lanean ari da dagoeneko. Hala ziurtatu zen urteko azken ohiko osoko bilkuran, Udaletxean, pasa den asteartean, abenduaren 23an. Udalbatzak aho batez onartu zituen 5.500 euroko zehapenak zerbitzuaren egungo enpresa esleipendunari, us-tiapen-kanona 12 hilabetez ez ordaintzeagatik.

PPk, EH-Bilduk eta Elkarrekin Podemosek Gobernua kritikatu zuten, gai hori hasieratik gaizki kudeatu duelako eta bere garaian ez zuelako zatikatutako zorren eta ez ordaintzeen berri eman, 600.000 euroko zorra pilatu arte. Udal gobernuak ziurtatu zuen lanean ari direla plegu teknikoak hobetzeko, kontratua bertan behera uzteko eta emakida berriro lizitaziora ateratzeko. "Enpresak 1,5 milioi euro inguru ordaindu ditu dagoeneko kontratuari dago-kionez. Beraz, hau ez da barra libre bat. Zehapenak existitzen dira eta dagokionean aplikatzen dira. Koherentziaz, baina araudian jasotako eskubideak ere badaude, hala nola ordainketak zatikatzea, eta zatikatze hori hilabetez hilabete betetzen ari da. Hala ere, gaur egungo ez-ordaintzeen egoera

daukagu. Eta argi eta garbi, kanonaren zenbatekoa arazo bat da enpresaren bideragarritasunerako. Baina ez dugu izan eta ez dugu tresnarik hori aldatu ahal izateko. Esperientzia horretatik ondorio argi bat ateratzen dugu: pleguak hobetzea eta hurrengo lizitazioa babestea, horrelako egoera bat berriro errepika ez dadin".

Bestalde, Udalak eta bere Erakunde Autonomoek 2025eko hirugarren hiru-hilekoan izan duten aurrekontuaren gauzatzearen berri eman zen, baita Bozeramailen Batzordeak Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta hartutako Adierazpen Instituzionalaren berri ere.

Onartutako mozioa

Mozioen kapituluak, eta testigantza gisa, bat bakarrik onartu zen. PPk aurkeztua, non udal lorezaintzako kontratua lotetan zatitzeko Gobernu Batzordearen erabakia baliogabetzeko eskatzen zuen, eta Udalaren Osoko Bilkurak onartzea kontratazio administratiboa arautuko duten klausula administratibo eta teknikoaren pleguak, baita ondorengo esleipena ere. Oposizioaren ustez, Gobernuak kontratua 3 lotetan banatzea erabaki du, eta kontratuaren iraupe-na 18 hilabetera murriztea, esleipen horren osoko bil-

kuraren kontrola saihesteko. Gobernuak, berriz, adierazi zuen lotetan banatzea erabat legezkoa dela, eta legeak, hori ahalbidetzeaz gain, sortatan banatzea errazten duela, zerbitzua konplexua denean eta zeregin desberdinak dituen, kontrol handiagoa, jarraipen handiagoa eta emaitza hobek ahalbidetuz.

Idazkariari agurra 23 urtez karguan egon ondoren

Osoko bilkura amaitu aurretik, Amaia Aguirre alkateak esker oneko hitzak izan zituen Ignacio Etxebarria Etxeita Udaleko idazkariarentzat egindako lanagatik, kargu horretan 23 urte eman ondoren erretiroa hartzen baitu. Aldi berean, zorte ona opa zion etorkizuneko proiektuetan, eta PPk ere eskerrak eman zizkion. Era berean, idazkaria bera pozik agertu zen urte hauetan arlo profesionalean eta pertsonalean beti jaso duen errespetuagatik eta lankidetzagatik, eta barkamena eskatu zuen egin izan zitzakeen akatsengatik.

Gabon kantak

Eta aurreko urteetan bezala, etenalditxoak egin zen osoko bilkuran, San Inazio ikastetxe-ko ikasleek Udalbatzari Udaletxeko zabalgunean abestu zizkieten gabon kantak entzuteko.



Mimarte, Nenes, Blonda II, Minnistore eta Vito 52, Erakusleihen Lehiaketaren 35. edizioko irabazleak

Getxo Enpresak Erakusleihen Lehiaketaren 35. edizioko sari ugariak banatu ditu dagoeneko saltoki irabazleen artean: Mimarte Shop, erakusleihen fisiko onena; Nenes, erakusleihen birtual onena; Mertzera Blonda II, erakusleihen jasangarrienaren sari berezia; eta Minnistore Las Arenas, bezeroekin ondoen konektatzen duen erakusleihen birtuala. Gainera, Vito 52 ne-

gozioak publikoaren erakusleihen gogokoenaren kategorian irabazi du. Sariak emateko ekitaldia joan den asteazkenean, abenduaren 17an, izan zen San Joseren Jauregian, eta bertan izan ziren Amaia Aguirre alkatea, Elena Cantera Getxo Enpresa elkartearen presidentea, enpresa babesleen ordezkariak eta elkartearen kide diren negozio ugari.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



“Txillarreko sukaldaria” dokumentala, RKEN

Romo Kultur Etxea-RKEN, Asier Ibaibarriaga eta Edurne San Martinen *Txillarreko sukaldaria* izenburuko dokumentala emango da datorren asteazkenean, urtarrilaren 7an, 19:00etan. Proiektzioa dohainik emango da, euskaraz, gaztelaniazko azpigituluekin, eta horren ostean, solasaldi bat egingo da bi zuzendariekin.

Elgoibarko Txillarre baserrian bizi den Pello Rubio da dokumentalaren ardatza. 1999an bi mundu politikoki kontrajarri biltzea erabaki zuen: PSEko Paco Egea eta ezker abertzaleko Arnaldo Otegi. *“Ia sei urtez isilpean luzatu ziren elkarrizketek amaitu ziren, azkenean, ETaren armagabetzearekin. Pello Rubioren rola funtsezkoa izan zen prozesu osoa aurrera eramateko, eta dokumentalak bere esperientzia, bizipenak eta elkarrizketaren alde egin zuen lana jasotzen ditu”*, adierazi dute antolatzaileek.

Emanaldirako sarrerak RKEN eta Muxikebarrin daude eskuragarri.

Camerata Liricak “La flauta mágica” aurkeztuko du Muxikebarrin

Datorren larunbatean, urtarrilak 3, Muxikebarrin *La flauta mágica* operaz gozatu ahal izango da.

Wolfgang Amadeus Mozarten musikarekin eta Emanuel Schikanederren libretoarekin, erreperitorio klasikoko opera enblematiko eta iradokitzaileenetako bat da, ipuin herrikoia

elementuak, fantasia eta ezagutzari buruzko gogoeta uztartzen dituena. Oraingo honetan, Espainiako Kamerata Lirikoak alemanezko kantuari eusten dion bi ekitaldiko egokitza-pena aurkeztuko du –jatorrizko bertsiotan bezala–, hitz egindako zatiak gaztelaniaz interpretatzen diren bitartean, publiko mota guztientzako

historia eskuragarriago eginez.

Maitasuna, jakinduria, umorea eta iluntasuna elkartzen dira musika bidaia ahaztezin batean, non argiak beti irabazten dien itzalei.

Ikuskizuna 19:00etan hasiko da eta sarrerak 18 euro balio du.



Ostiral honetan, urtarrilak 2, Muxikebarrin

Samaria Gospel Singers taldeak kontzertua emango du

Muxikebarriko Arrigunaga aretoan Samaria Gospel Singeren kontzertua izango da ostiral honetan, urtarrilaren 2an, 20:00etan.

Estilo indartsua, dinamikoa eta emozioz betea izanik, talde hau egungo gospel panoramako nabarmenetako bat bihurtu da. Inés Goñi abeslari eta zuzendariak gidatuta, Ivan Azkarate, David Lopez eta Borja Doñororen ahots indartsuekin batera, musika genero honen bihotzean barrena bidaia bat egitera gonbidatzen gaitu.

Bere errepertorioa gospelaren kla-

siko handiez elikatzen da, baina baita kontzertu bakoitza freskotasunez eta sakontasunez aberastenduten eragin berriez ere. Beren interpretazio grinatsuarekin, genero honi forma eman zioten kondairak omentzen dituzte, hala nola Doris Akers, The Staple Singers, Clara Ward eta Mahalia Jackson.

Eszenan, publikoarekin duen lotura berehalakoa da, eta giro beroa, hurbila eta alaitsua sortzen du.

Kontzerturako sarrerak 12 euro balio du.



“Akri”, akrobata batek eta eskailera batek eszena, gorputza eta kontakizuna partekatzen dituzte

6 urtetik gorako haurrentzako *Akri* ikuskizuna iritsiko da Getxora. Muxikebarrin izango da ikusgai larunbat honetan, urtarrilak 4, 18:00etan. Muntaketarako sarrerak 8 euro balio du.

Manel Rosés Moretoren ideia originala da. Bartzelonan jaio-tako akrobata da, Soon Circus Companyren sortzaileetako bat, eta hainbat konpainiatan lan egin du, besteak beste, Cirque du Soleil.

Rosések zirku bakar bat planteatzen du, non eszena eta kontakizuna eskailera batekin partekatzen dituen. Eguneroko objektu hori

zirku, eszenografia eta sinbolo bihurtzen du, eta *linde* kontzeptua esploratzen du: dena aldatzear dagoen mugako espazio hori. Eskailera –bere 22 mailekin– ikuskizun poetiko eta zehatz baten ardatz fisiko, dramaturgiko eta emozional bihurtzen da. Bisualki araztutako proposamen bat, mugak beste leku batetik begiratzera gonbidatzen duena... Nola bizi dugu bi momenturen artean igarotzen den denbora?

Proiektuaren berezitasuna diziplinen nahasketan datza: antzerkia, objektuen manipulazioa, mugimendu akrobatikoa eta clowna.

Unai Aranzadi zuzendari getxotarraren “Buscando a Pedro Baigorri” dokumentala saritu dute

Unai Aranzadi getxotar zuzendari, kazetari eta dokumentalgileak, *Buscando a Pedro Baigorri* bere filmerako dokumental luzerik onenaren saria lortu du, Bartzelonako XXII. Zine eta Giza Eskubideen Zinemaldian, “*historiarekin duen konpromisoagatik eta haren trataeran duen zorrotasunagatik*”.

Aranzadik 20 urtez Zabaldikan (Nafarroa) jaiotzen Pedro Baigorri sukaldari eta gerrillariaren inguruan egindako ikerketaren emaitza da filma. Bere bizitzan zehar Francori jaten eman zion *El Azor* ontzian, Aljeriako FLNrekin kolaboratu zuen Parisen, Fidel Castoren laguna izan zen Kuban, bere laguntzaileaz gain, eta Kolonbian desagertu zen bere gerrilla talde propioa sortu ondoren, non segada batean hil zen, 1972an.

82 minutuko luzemetraia da eta Mexiko, Espainia, Kolonbia, Suedia, Kuba, Frantzia eta Venezuelan filmatu zen. Joan den abenduaren 6an estreinatu zen, aipatutako Jaialdiaren barruan, Pedro Baigorriren hogeita hamar urte bakoitzaren gehiagoren aurrean, Bartzelonan.



Unai Aranzadi

Unai Aranzadi getxotarrak 25 urteko esperientzia du gerrako erreportari gisa lau kontinentetan; munduko hainbat katetan emandako dokumental ugari zuzendu ditu eta hainbat sari lortu ditu zinemalditan.

Halaber, Udalaren eta UnEtxea GGKEaren laguntza izan du bi dokumental egiteko: *Jambo Amani?*

indarkeriari uko egiteari eta Nazio Batuak Kongoko Errepublika Demokratikoan birgizarteratzeko programa bati heltzeari buruz, eta *A costa dos Lançados*, Kanariar Uharten eta Cabo Verden barrena Afrika beltzaren lehen esplorazioak egin zituzten konbertitutako pertsona juduei buruz. Joan den abuztuan lan horri buruzko diziplina anitzeko erakusketa bat ikusi ahal izan zen Romo Kultur Etxean.

Gizarte Zerbitzuen hitzarmena Mankomunitatearekin

Udalak Uribe Kostako Mankomunitatearekin Gizarte Zerbitzuen hitzarmena berritza onartu du. Urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta lau urteko indarraldia izango du. Hitzarmenaren helburua da eskualde mailan eman beharreko zerbitzuen inguruko betebeharrak erantzuteko esparru administratiboa finkatzea. Zerbitzu horiek honako hauek dira: gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta (10 plaza), gaueko harrera (19 plaza), neguko ostatua, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzak (17) eta egoitza-bazterketa larrian dauden pertsonen zenbaketa.

Eguneko arretako eta gaueko harrerako zerbitzuak Getxon emango dira, kostuaren %63,52 bere gain hartuta, eta Mankomunitateak %36,48. Tutoretzapeko etxebizitzetarako dagokienez, Getxok 11 plaza eman go ditu eta udalerriko etxebizitzetarako eragindako gastuak bere gain hartuko ditu.



San Nikolas Ikastolako eraikin berria

San Nikolas Ikastolako eraikin berria izango du 2027an. Lanak, Arene parke berriaren ondoan, joan den udazkenean hasi ziren lurra kentzeko beharrekin, eta, lurra nibelatu ondoren, ikasleek proiektuarekin lehen harreman zuzena izan zuten, Gabonetako oporren aurretik, obran lur palakada sinboliko bat eginez.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek proiektua bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten, txaleko islatzaile eta kaskoak jantzita, palak, aitzurrak eta orgak erabiliz, eta Gure Ikastola Eraikitzen meza zuten kartelak erakutsiz.

Eraikin berria zurezko barne-egiturarekin eraikiko da, “*arkitektura jasangarri, osasungarri eta energe-*

tikoki eraginkorraren alde eginez. Proiektua udal jabetzakoa den lursailaren emakidaren bidez garatuko da, eta, beraz, eraikina herritar guztientzako izango da, nahiz eta ikastolako bazkideek finantzatuko duten”, adierazi dute ikastetxetik.

Proiektua San Nikolas Natura Ikastola bihurtzeko asmoarekin sortu da, Haur Hezkuntzarako (1-5 urte) pentsatutako proposamen bat da bere osotasunean. Eraikin berriaren inaugurazioa 2027rako aurreikusita dago.

Interesdunek ikastola berria ezagutzeko aukera izango dute Ate Irekien jardunaldietan, urtarrilaren 21ean eta 22an, eta www.sanikolas.eus webgunean hitzordua hartu ahal izango dute.



“Olgetan euskaraz” ekimena urtarrilean eta otsailean

Familiatan euskarara hurbiltzea, ikastea eta erabiltzea helburu duen Sendi proiektuak (Udalak eta Egizu elkarteak sustatuta), aurten ere, neguko jarduerekin batera, *Olgetan euskaraz* ekimena martxan jarriko du, 2 eta 5 urte arteko umeei zuzenduta, familia giroan haiekin euskaraz jolasteko eta kantatzeko.

Urtarrilean eta otsailean, hainbat talde izango dira martxan Getxoko Elkartegian eta Romo, Zabala eta Zubileta eskoletan. Gune bakoitzean, 4-5 guraso, umeak eta dinamizatzaile bat elkartzeko dira, eta astean behin, 45 minutuz, euskarazko kanteekin eta jolasekin gozatu dute, dohainik gainera. Talde batzuetan gurasoek euskaraz jakin beharko dute eta besteetan euskaraz eta gaztelaniaz (talde mistoak izango dira) tartekatuko dituzte azalpenak.

Ekimenean parte hartu nahi duten edo informazioa eskatu nahi duten pertsonak 622 43 30 85 telefono zenbakira deitu, sendigeto@gmail.com helbidera idatzi edo inprimakia (<https://labur.eus/OLGETAN2026>) bete beharko dute.

Horrekin batera, euskaraz berba egiteko ohitura duten gurasoak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzen dituen Gurasolagun programa ere abian izango da. Parkean, leku babestu batean... euskaraz dakitenak eta ikasten ari direnak bilduko dira taldetan, tailerretan edo irteeratan. Batetik, ordutegi, kezka eta hizketagai komunak dituztela aprobetxatzeko eta, bestetik, aldi berean haurrekin egon ahal izateko aukera da. Doako izenematea: 622 43 30 85.

260.281 euro, Gizarte Kohesioan diharduten 56 erakunderentzat

Udalak 260.281 euro banatuko ditu Gizarte Kohesioaren alorrean aritzen diren 56 entitateren artean, asoziazionismoari eta boluntariotzari laguntzen jarraitzeko eta parte-hartzea eta elkartasuna sustatzeko. Deialdi bakar batean ematen diren laguntza horiei esker, kalitate handiagoko proiektuak egin daitezke, eta hainbat elkartek sarean lan egin ahal izango dute, elkarbizitzaren aldeko esku-hartze komunitarioaren mesedetan.

Lehen ildoak, 128.705 euro banatuko ditu 51 eskaeraren artean, asoziazionismoa sustatzeko eta indartzeko, eta Gizarte Kohesioaren arloari lotutako Getxoko erakundeentzako mantentze-, funtzionamendu- eta indartze-gastuei aurre egiteko.

Bestalde, Gizarte Kohesioaren



eremuko intereseko proiektuak finantzatzera bideratutako bigarren leerroak 128.576 euro banatuko ditu udalerriko erakundeentzako 15 proiektuaren artean, 2A leerroan.

Azkenik, 3.000 euro banatuko dira 2B lineako beste hiru proiektuarentzat, udalerritik kanpoko erakunderentzat, baldin eta haien jardueraren onuradun Getxoko bizilagunak badira.

Lehen linearen kasuan, justifikazioak aurkezteko gehieneko epea 2026ko otsailaren 28an amaituko da, eta bigarren linearen kasuan, erakundeek, ebazpenaren datatik aurrera, 12 hilabete izango dituzte gauzatzeko, eta hilabete bat jarduerara amaitzen denetik justifikatzeko. Finantzatutako proiektuaren %100 justifikatu beharko da.

“Lonjak Piztu” programak zazpi negozio ekintzaileri eman die dirulaguntza 2025ean, lokalaren alokairuaren gastuen zati bat ordaintzeko

Udalak 37.200 euroko dirulaguntza eman die negozioa ireki duten udalerriko zazpi ekimen ekintzaileri, beren lokalaren alokairuaren gastuen zati bat ordaintzeko, negozioaren jardueraren lehen urtean. *Lonjak Piztu 2025-2026* programaren lehen deialdiaren ebazpena da, Sustapen Ekonomikoko arloak udalerrian hutsik dauden merkataritza lokalak okupazioa sustatzeko abian jarritakoa. Programa honen helburu nagusia da Getxoko hiru gunek nagusietako (Areeta, Romo eta Algorta) merkataritza-ardatzen ondoko kaleak biziberritzea.

Diruz lagundutako negozioak hauek izan dira: Nella Estetika (Estetika aretoa), Adi! Espacio (arkitektura eta diseinu proiektuak) eta Bibarre (Barre, yoga, pilates eta entrenamendu funtzionala), Algortan. La Pimienta Dorada (solteko elikagaiak), Garbiprest (garbiketaz zerbitzuak) eta Bam-Bam (zeramika estudio-tallerra), Areetan; eta Irie Pilates (gimnasioa eta entrenamendu funtzionala), Romon.

Lonjak Piztu 2025-2026 programak lokalaren hileko alokairuaren %50 diruz laguntzen du – gehienez 400 euro–, eta, gehienez, 12 hilabetez; eta beste 150 euro gehiago hilean, baldintza hauek betetzen bada: gaztea izatea, jarduerara sustapen ekonomikoak bultzatu eta garatzen dituen esparru estrategikoetara bideratuta egotea, edo ekimena emakumeek bultzatzen badute. Horretarako, beste baldintza batzuen artean, lokalak udalerriko

DIRULAGUNTZAK HUTSIK DAUDEN LOKALAK ALOKATZEKO

AYUDAS ECONÓMICAS AL ALQUILER DE LOCALES VACÍOS

ZABALIK ABIERTO

Informazio gehiago | Más información
www.getxo.eus/promocion-economica

f i X in @getxolan

kale jakin batzuetan egon behar du, eta jarduerara 2025eko azaroaren 15aren ondoren hasi behar izan du.

Getxoko Udalak 100.000 euro bideratuko ditu berriro ireki diren 2026an, “*lokalen itxierak hirian dituen ondorioei aurre egiteko, itxiera horiek jarduerara ekonomikoa murrizten baitute eta abandonu sententzia sortzen baitute; beraz, berri irekitzea edo berrerrabiltzea funtsezkoa da kaleak biziberritzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko*”, Juanma Gonzalez Sustapen Ekonomikoko zinegotziak adierazi duenez.

Eskaera bigarren deialdian egiteko epea 2026ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era arte egongo da zabalik. Argibide gehiago: <https://labur.eus/swvaqwx>

San Silvestre lasterketa, urteko azken kirol hitzordua



San Silvestre lasterketak emango dio amaiera udalerriko atletismo-denboraldiari asteazken honetan, hilak 31, 10:30etik aurrera. TriRunners Getxo klubak antolatuta, zazpigarren edizioa beteko du aurten.

Lasterketa 7.500 metro ingurukoa izango da, Bizkaia Zubian hasi eta amaituko da, eta bertan 600 atleta elkartuko dira, antolatzaileek parte-hartzeko ezarritako muga, hain zuzen ere. Lasterketa herrikoia denez, ez da kronometratuko. Irabazleek, gizonezkoetan zein emakumezkoetan, garaikur bat eramango dute, eta parte-hartzaile helduek opari bana jasoko dute, nahitaezko dortsala jasota.

Udal talde politikoaren iritzia



URTE BARRI ON!



2025. urtea amaitu egingo da. Urtea gazi-goza izan da, eta horren isla argia da guztiok egun hauetan egin ahal dugun balantzea, izan maila orokorrean, izan norbera bere maila pertsonalean.

Egia esateko, laster amaituko den urtea ona izan da. Zerbitzu publikoan lana eta ardur handiak izan ditugu, eta itzalen bat edo beste ere egon da. Hala, politika-arloan, batez ere Gobernuarekiko erantzukizuna daukagunean, aurkariaren interes batere txeratsuetatik etortzen dira itzalak askotan.

Gabonetako espirituan murgilduta gauden bitartean, 2025. urteko alderdi positiboak eta onak baino ez ditugu aintzat hartuko. Gutxien gustatzen zaizkigun alderdiak adierazi arren, bizitzeko, gozatzeko eta lan egiteko tokirik onentzat hartzen dugu gure herria Getxoko auzokide guztiok; izugarriko bizi-kalitatea eta bizitza praktikoa

dauzkagu behar ditugun zerbitzu guztietan, bai gizarte-, kultura-, kirol- eta ekonomia-arloetan, bai eguneroko bizitzan.

2025. urteak amaiera oso garrantzitsua izan du Getxoko eta getxotarren orainari eta etorkizunari dagokionez, HAPOa behin betiko onartu baita. Izan ere, horrek Getxon etxebizitza eta lanpostu gehiago egotea ahalbidetuko du, eta horiek dira Getxoko auzokideen kezka nagusiak, hain zuzen ere. Pixkanaka-pixkanaka, gure herria etxebizitza publikoa eskaintzen ari da, batez ere gazteei zuzenduta, haiek baitira emantzipatzeko zailtasun handiagoak dituztenak.

2025. urtean hirigune baten egokitzapen-eredu praktikoa bihurtu da Areeta auzoa, etorkizunak jasagarritasun-, ingurumen- eta gizarte-arloetan eskatzen digunari erantzuteko; Areeta, batez ere, pertsonen eta haien gozamenari zuzenduta dago.

Betetzen ari garen beste konpromiso oso garrantzitsu bat Bidezabaleko arrapalak dira. Egia esan, urte honen hasieran, zaila zirudien... Baina guztiz abian daude. Zailantzarik gabe, hamabi hilabete barru Salsidualderi buruz gauza bera esan ahal izango dugu; izan ere, zailtasunak gorabehera, denbora gutxian hobekuntza-lanak bertan ere hasiko dira.

Horiek dira 2025. urteko itxiera-balantzean eta 2026. urteko ongi-etorrian optimismoa eta ilusioa mantentzeko gonbita egiten diguten adibide guztien arteko batzuk.

Getxotarrentzat Getxo da bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko lekurik onena, eta hasiko den urtean hobetzen jarraituko du.

Urte barri on, eta 2026 zoriontsua izan dadila guztiontzat.



GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON

Gure egunerokoan daudenekin partekatze eta haiengandik hurbil egoteko garaia dira Gabonak, familia, lagunak eta Getxo bizirik mantentzen duten pertsonengandik hurbil egoteko garaia, alegia. Topaketetarako eta komunitate gisa elkartzeko gaituen horren garrantzia nabarmentzeko unea da. Getxoko Alderdi Popularreko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu urte honetan zehar laguntza eta konfiantza azaldu diguten guztiei, baita haien iritzia helarazi dizkigutenei ere. Zuen iradokizunek lagundu egiten digute guztiontzako udalerrri baten alde lanean jarraitzeko eta hobetzeko.

Era berean, garai honek getxotarrek daukagun konpromisoa berritzeko ere balio du. Seriotasunez, hurbiltasunez eta erantzukizunez lanean jarraituko dugu, auzokideak entzungo ditugu eta, besteak beste, segurtasunari, etxebizitzari eta aparkalekuei lotutako proposamenak defendatuko ditugu, bizi-kalitate hobea duen Getxo irisgarriagoa eraikitzen laguntzeko. Urte berriari gogotsu eta ilusioarekin begiratzen diogu, elkarren ondoan lan egiten jarraitzea eta helduko diren erronkei elkarrekin aurre egitea baitugu xede. Jai zoriontsuak eta urte berri on.



ehbildu

2025. URTEARI BEGIRADA KRITIKOA

Gabon hauetan berriro kaleak betetzeko eta elkarren irribarreak ikusteko aukera izan dugu. Hala ere, baditugu hainbat arrazoi gure irribarreari lortzen uzten ez dietenak.

Aurten, Udal Gobernuak espekulazioan eta eraikuntza masiboan oinarritutako HAPOa onartu du, horrek eragingo duen suntsipenari eta herriaren benetako beharrei entzungo eginez.

Azken hilabetean, kezkarriak izan dira Getxoko Kirol Portuaren inguruko albisteak ere: 26 metroko altuera eta

zortzi solairuko hotel baten proiektua mahai gainean egon da, eta portuaren kudeaketaz arduratzen zen enpresak kontratuari uko egiteak ziurgabetasuna areagotu du, portuaren etorkizuna zalantzan jarriz.

Bestalde, EAJk eta PSEk Irurak bat jaurgiaren eraispen irregularrari 50.000 euroko isuna ezartzea erabaki dute. Erabaki horrek agerian uzten du Udal Gobernuak ondare historikoarekiko izan duen arduragabekeria. Udalaren txosten tekniko baten arabera, enpresak 730.000 euroko irabaziak izango

ditu eraikin historikoa botatzeagatik.

Era berean, Getxoko Udalak aurten 95 lanpostu betetzeko Enplegu Eskaintza Publikoa iragarri du, baina lanpostuen erdiari baino ez zaio ezarri euskararen ezagutza eskakizuna. Hizkuntza-eskubideak oinarritzeko eskubideak dira, eta, beraz, giza eskubideak. Eskubideen artean ezin da hierarkiarik ezarri; eskubide bat besteen gainetik jartzen denean, lehen eta bigaren mailako eskubideak sortzen dira, eta horrek esan nahi du herritar guztiek ez dituztela eskubide osoak bermatuta.

Horri guztiari gehitu behar zaio, 2026ko udal aurrekontuak prorrogatuak izango direla. Horrek esan nahi du Udalak ezingo diela behar bezala erantzun herriak dituen erronkei: etxebizitzaren krisiari, mugikortasunari, ondarearen eta ingurumenaren babesari edota herri-eragileen lana errazteari.

Egoera honen aurrean, elkarrekin, aniztasuna oinarri izango duen Getxo bat eraikitzen jarraituko dugu, goputz, ahots eta errealitate desberdin guztientzat lekua izango duena.



2026. URTEAN GETXO HOBEA ERAIKITZEN JARRAI DEZAGUN. GABON ZORIONTSUAK!



JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON

Gabon hauetan, Udal Talde Sozialistako kideok gure desiorik onenak helarazi nahi dizkiegu eta ilusioz betetako mezua bidali nahi diegu gure herrikideei, 2025. urteari agur esateko eta 2026. urteari ongi-etorria emateko. **PSE-EEn, lanean jarraituko dugu Getxo hobea, berdinzalegoa eta sozialki bidezkoagoa eraikitzeko.** Gobernu-taldean gaudenez gero, per-

tsionak politika publikoaren erdigunean mantenduko ditugu, nagusiak zainduko ditugu eta gazteengan pentsatuko dugu, **hemen aukerak eta etorkizun duina aurkitu ditzaten.** Kalitatezko zerbitzu publiko hurbilekin, Getxo jasagarria eta bateratua izatea lehenesten jarraituko dugu. Eta ez dugu ahaztuko **hain garrantzitsua den tokiko merkataritza;** ekin-

tzailei laguntza emango diegu eta **Getxoren jarrera indartuko dugu, jarduera zein lana erakartzeko ahalmena eta talentua daukan udalerrri berritzaile gisa.** Era berean, gure udalerrian balioa sortzen eta ongizatea eragiten duen guztiaren aldeko apustua egin dugu, hala nola kirolaren eta kulturaren aldekoa. Jai zoriontsuak eta urte berri on, Getxo!

Elkarrekin Podemos taldeko kideok jai zoriontsuak eta urte berri ona opa dizuegu. Gure udalerriarekiko ardurarekin, konpromisoarekin eta ilusioarekin ekingo diegu urte berriari. Gure helburua beti izango da herri-arrantzako benetako hobekuntzak sustatzea eta auzokideen interesak irmoki eta gardenki defendatzea. Getxo bidezkoagoa eta solidarioagoa izan daiteke-eta.